

## CPENen Plan Estrategiko berriak lidergo publikoaren aitzindari bihurtu ditu sozietate publikoak

Saiz sailburuak eta CPENeko zuzendari nagusiak gaur goizean aurkeztu dute 2021-2024 Plan Estrategiko berria. Plan hori Foru Aldundiaren enpresa-sektore publikoaren aurrerapenaren eta eraldaketaren alde lan egingo du, azken urte hauetako sendotzea eta gero



CPENeko Administrazio Kontseiluko bilera baten argazkia

*Iruñean, 2021eko irailaren 20an* – Nafarroako Gobernuako Ekonomia eta Ogasun kontseilariak eta Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoko (CPEN) kontseilari delegatuak, Elma Saizek, gaur goizean, Korporazioko zuzendari nagusi Francisco Fernandez Nistalekin batera, 2021-2024 urteetarako Plan Estrategiko berria aurkeztu du.

Aurkezpenean, Saiz sailburuak adierazi duenez, “Nafarroako Gobernua ziur dago CPEN eta sozietate publiko guztiek zeregin nagusia izan behar dutela, lidergo publikoaren aitzindari gisa. Eginkizun hori arrakastaz bete da beste une historiko batzuetan. Hori dela eta, 2021ean eta pandemia osteko egoera honetan aurre egin behar diegun erronka handien aurrean, Plan Estrategiko berri bat jarri diogu Korporazioari, Nafarroako erronka handiei buruzkoa.

Bestalde, Francisco Fernandez Nistal CPENeko zuzendari nagusiak esan du CPENek enpresa-sektore publikoa lidergo handiagorantz aurreratzen eta aldatzen lan egingo duela, Nafarroaren garapenaren motor gisa, eta horrek Nafarroako gizarteari egiten dion ekarpena ikusarazteko. “Enpresa Korporazio Publikoko sozietate publikoek gure lana indartzeko lan egingo dugu, gure erkidegoaren lurraldea egituratzeko eta gizarte-kohesiorako funtsezko tresna gisa, eta etorkizuneko Nafarroa sustatzen suspertzen eta eraikitzen jarraitzeko”, erantsi du

Gaur goizean aurkeztutako plan estrategikoa 68 ekintzatan eta 93 betetze adierazletan gauzatzen da, 8 ardatz estrategiko hauen barruan: Iraunkortasun finantziarioa eta Nafarroako ekonomiaren eragile papera; barne- eta kanpo- komunikazioa; CPEN Enpresa Nagusiaren eta Korporazioaren posizionamendua, gizarte zibilari eta administrazioari irudia eta marka emanez; digitalizazioa, CPENetik sozietate publikoetara; CPENen gobernantza eta lidergoa; pertsonen garapenerako estrategia; partaidetza-sentimendua sortzea; eta lidergoa jasangarritasunean, berrikuntzan eta kudeaketa-praktika egokien sustapenean.

CPEN 2021-2024 Plan Estrategikoaren laburpen-dokumentua itzultzen ari gara. Momentuz, hemen daukazu [gazteleraz](#).

## Nafarroako garapena bultzatzeko korporazioa

Nafarroako Gobernuak garatzen duen zerbitzu publikoa bermatzeko eta Foru Komunitaterako aberastasuna sortzen laguntzeko, Nafarroak Enpresa Korporazio Publiko garrantzitsu bat du, 16 sozietatek eta 1.300 profesionalek osatua. Korporazio horren ezaugarri dira Nafarroaren zerbitzuan ezagutza sakon eta espezializatua jartzea hainbat jarduera-eremutan, hala nola nekazaritza eta abeltzaintza, etxebizitza eta lurraldearen garapena, enpresa-sarearen finantzaketa eta garapena, ingurumena eta kudeaketa (araztegiak, telekomunikazio zentroak, superkonputazio zentroak edo kultura-, kirol- eta aisia-instalazioak; hezkuntza; kartografia eta lurralde-informazioko sistemak; zientzia-dibulgazioa; industria-jarduera; adimen artifiziala edo medikuntza pertsonalizatua.

Sozietate nagusi den aldetik, CPEN da sozietate publikoen funtzionamendua koordinatzeko, jarduteko politika eta jarraibide komunak ezartzeko eta horien jarraipena egiteko bermea. Helburua da enpresa-sektore publiko erreferente, orekatu eta jasangarria lortzea, eraginkortasun -eta balio- sorkuntzako irizpideen arabera.

Era berean, Korporazio Publikoa funtsezko tresna da Nafarroaren berrikuntza eta lurralde eta gizarte egituraketa bultzatzeko, erantzukizun publikoko balioak transmititzeko eta Nafarroako Gobernuaren departamentuen politikak gauzatzen laguntzeko.